



Meaka konpainia • Prentsaurrekoa - 2024-12-13

Lehenik eta behin, ongi etorria eman nahi dizuegu bertaratu zareten guztioi. Gugana hurbiltzeko egin duzuen ahalegina biziki eskertzen dizuegu.

Aspaldian jende askoren ahotan zebilen Meaka auzoko konpainia sortzearen nahia eta beharra. Bereziki auzoari lotuta gaudenok eta urteak daramatzagunok beste hainbat konpainietan parte hartzen sentitu izan dugu hori, hain zuzen ere. Nahiz eta Meaka Irungo antzinako lau auzo zaharrenetarikoa izan, ez baitu gaur arte tokirik izan konpainia gisa alarde parekidean.

Pasa den uztailean, ordea, auzoko bizilagun eta lagun talde txiki batek askoren ahotan ibilitako ideari irmoki eutsi, eta egikaritzeko lehen pausuak eman zituen. Horrela, galdetegi bat helarazi zen Whatsapp bidez, jakiteko Meaka auzoko konpainia sortuko balitz, jende gehiago parte hartzera animatuko ote zen. Erantzuna ezin hobea izan zen; izan ere, ehun pertsona baino gehiagok baiezkoa eman zuten. Hori horrela izanik, irailean elkartzeko gonbita jaso genuen eta hementxe, auzo elkartearen, topatu ginen lehenengoz, aurrez-aurre.

Gure helburua 2025eko ekainaren 30ean Irungo Alarde Parekidean konpainia gisa desfilatzea da. Belaunaldi berriek euren auzoko konpainian parte hartzeko aukera izan dezaten bermatu nahi dugu. Eta horretarako lan taldea eratu dugu, berdintasunaren bidean aurrera pausuak emateko konpromiso irmoarekin.

Bertan gaude Meaka auzoan bizi direnak edo bizi izan direnak, jadanik beste konpainia batzuetan urteak desfilatzen daramatzatenak, nahiz lehenengoz parte hartuko dutenak. Guztiok gogotsu gabiltza lanean, jaiak elkarrekin gozatu ahal izateko.

Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiogu Alarde Publikoko Juntari, eta gure Jeneralari, mila esker Maite gaur hemen gure ondoan egoteagatik. Baita San Miguel konpainiako kideei ere, eskaini diguten babesagatik. Uneoro gu laguntzeko prestutasuna erakutsi baitute.

Bestalde, datorren urteko otsailerako bazkari bat antolatzen ari gara eta bertan parte hartzeko deialdia egiteko aprobeztatu nahi dugu. Elkar ezagutzeko eta konpainiako kideen arteko harremana sendotzeko aukera ezinhobea dela uste dugu.

Dena den, hau ez da ekitaldi bakarra izango, aurrerago beste hainbat egingo baititugu, besteren artean mendi ibilaldi bat udaberri aldera. Sare sozialen bitartez emango dugu guztiaren berri.

Bukatzeko, gonbidapena luzatu nahi diogu datorren ekainean gurekin desfilatu nahi duen pertsona orori. Irungo kaleak elkarrekin ilusioz beteta zeharkatzeko irrikan gaude. Era berean, Meaka auzoko konpainiako lan taldean aktiboki parte hartzera animatzen zaituztegu. Hartara, gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, posta elektronikoa (meakakonpainia@gmail.com) eta Facebook eta Instagram kontuak @meakakonpainia sortu ditugu.

Gora Meaka, gora Irun eta gora San Martzial!



Meaka konpainia • Rueda de prensa - 13-12-2024

En primer lugar queremos daros la bienvenida a todas las personas que habéis venido. Apreciamos de verdad el esfuerzo que habéis hecho para estar hoy aquí con nosotras. Muchas gracias.

Desde hace tiempo existía el deseo y la necesidad de crear la compañía del barrio de Meaka. Necesidad que hemos sentido principalmente las personas vinculadas con el barrio y llevamos años participando en otras compañías. Y es que aunque Meaka es uno de los cuatro barrios más antiguos de Irun, hasta ahora no había tenido cabida como compañía en el desfile igualitario.

El pasado mes de julio, sin embargo, un pequeño grupo de vecinas y amigas del barrio se aferró firmemente a la idea de la que muchas y muchos habían hablado y dimos los primeros pasos para ponerla en práctica. Así, a través de WhatsApp enviamos un cuestionario para saber si habría más personas animadas a participar y poder crear la compañía Meaka. La acogida fue inmejorable; de hecho, más de cien personas respondieron de manera afirmativa. De esta forma nos reunimos en septiembre aquí mismo, en la asociación de vecinos y nos encontramos por primera vez.

Nuestro objetivo es desfilan como compañía el día 30 de junio de 2025 en el alarde igualitario de Irun. Queremos conseguir que las nuevas generaciones tengan la oportunidad de participar en la compañía de su propio barrio. Y para ello hemos formado un grupo de trabajo, con el férreo compromiso de avanzar hacia la igualdad.

Hay personas que viven o han vivido en el barrio de Meaka, las que ya llevan años desfilando en otras compañías, incluso las que participarán por primera vez. Todas estamos trabajando con entusiasmo para que juntas podamos disfrutar de nuestras fiestas.

Queríamos agradecer el apoyo de la Junta del Alarde Público, gracias a Maite, nuestra Generala por acompañarnos hoy. También a los integrantes de la compañía San Miguel, por el apoyo que nos han brindado y han demostrado su disposición para ayudarnos en todo momento como nuestra compañía antecesora.

Por otro lado, queremos aprovechar para hacer un llamamiento a todas las personas que conformaran la compañía Meaka para participar en la comida que estamos organizando y de esta forma poder conocernos mejor y estrechar lazos.

Pero este no será el único evento ya que tenemos varios más en el futuro, incluida una marcha de montaña por primavera. Os informaremos de todo ello a través de nuestras redes sociales.

Por último, queremos extender una invitación a todas las personas que quieran desfilan con nosotras el próximo mes de junio. Estamos deseando recorrer las calles de Irun juntas y llenas de ilusión. También os animamos a participar activamente en el comité de la compañía Meaka. Por eso, hemos creado un correo electrónico (meakakonpainia@gmail.com), junto con las cuentas de Facebook e Instagram [@meakakonpainia](https://www.facebook.com/meakakonpainia), por si queréis poneros en contacto con nosotras.

Gora Meaka, gora Irun eta gora San Martzial!